



**WORDPRESS-EN GARATUTAKO WEB-ATARIAREN MANTENTZE-LANEN ZERBITZUA
KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA.
ESPEDIENTE-ZK.: 3180**

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Santiago Gallego Rodriguez
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN WORDPRESS-EN GARATUTAKO WEB-ATARI KORPORATIBOAREN LAGUNTZA- ETA MANTENTZE-ZERBITZUA 2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Kondizio-agiri honen xedea da laguntza teknikoak kontratatzea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren wordpress-en garatutako web-atari korporatiboaren laguntza- eta mantentze-lanetarako. Barne hartzen du funtzionalitate berria aztertzea eta oraingoak egokitzea sortzen diren arau- eta teknologia-alaketetara. 3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren web-atariaren laguntza- eta mantentze-zerbitzuen kontratua ez da lotetan banatzen; izan ere, kontrata batzuk aldi berean kode beraren gainean arituz gero, gerta liteke gatazka sortzea garatu beharreko zerbitzuaren eta garapenen artean, bai maila funtzionalean, bai bermeen mailan.
4.- CPV: 71356200-0 Laguntza teknikoko zerbitzuak.
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa: ☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	EHUN ETA BERROGEITA ZORTZI MILA EURO (148.000,00 €).
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 362.500,00 euro	
3.- Prezioa zehazteko sistema: ☐ Honenbesteko prezioa ☒ Prezio unitarioak	
4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:	



C.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 227.07.920,05.

- URTEA: 2026KO PARTIDA: 76.500,00 €
- URTEA: 2027KO PARTIDA: 71.500,00 €

5.- Prezioen berrikuspena:

☐ BAI ☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez

8.- Konturako ordainketak: Ez da aplikagarria

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: HOGEITA LAU (24) HILABETE

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ EZ

HAMABINA (12) HILABETEKO HIRU (3) LUZAPEN (4. Itema izan ezik)

4.- Bermealdia: URTEBETE (1)

5.- Kontratua exekutatzeko tokia: BBUP

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguru bat izatea (eskaintzak aurkezteko epera arte indarrean egongo da eta kontratuaren balio zenbatetsitik beherakoa ez den zenbatekoa izango du); halaber, aseguru hori berritzeko edo luzatzeko konpromisoa aurkeztuko da, horrek bermatuko baitu kontratuak estaldura izango duela gauzatzen den aldi osoan.



G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Azken hiru urteotan egindako kontratuaren xede den lanaren mota edo izaera bereko lanen zerrenda, betiere ondo egin izanaren ziurtagiri bidez bermatuta. Eta gutxieneko kondizioa izango da exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70 edo handiagoa izatea, edo batez besteko urteko zenbatekoarena kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa bada.

Laguntza- eta mantentze-zerbitzurako honako ziurtagiri hauek eduki beharko dituzte:

- UNE-ISO/IEC 27001:2014, Informazioan Segurtasuna Kudeatzeko Sistema, jardura hauetarako: Dokumentu-kudeaketaren, lan-fluxuen, aplikazio-integrazioaren eta edukiak kudeatzeko irtenbide espezifikoaren diseinua, garapena, ezarpena eta aholkularitza, eta bestelako ziurtagiri baliokidea.
- Kalitate-kudeaketa sistemaren UNE-EN-ISO 9001:2008, Kalitatea Kudeatzeko Sistema, jardura hauetarako: Dokumentu-kudeaketaren, lan-fluxuen, aplikazio-integrazioaren eta edukiak kudeatzeko irtenbide espezifikoaren diseinua, garapena, ezarpena eta aholkularitza, eta bestelako ziurtagiri baliokidea.
- ISO/IEC 20000: ITen zerbitzuak kudeatzeko sistema. Guztiz bateragarria da ITILekin (IT Infrastructure Library), edo ITen zerbitzuak kudeatzeko prozesurako jardunbide onenen gidaliburua, edo bestelako ziurtagiri baliokidea.
- Elkarrengarritasunaren Eskema Nazionala (EEN) egokitzea. Elkarrengarritasunaren Eskema Nazionala betetzeko auditoria-ziurtagiri independentea.
- Segurtasun Eskemara Nazionala (SEN) egokitzea. Segurtasun Eskema Nazionala betetzeko auditoria-ziurtagiri independentea.

☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoa:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeke ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Exekuzioaren metodologia eta memoria teknikoa.
- Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak.

Lantaldearen organigrama aurkeztu beharko dute, eta curriculumak eta ziurtagiriak aurkeztuz egiaztatuko da.



BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Enpresa adjudikaziodunak kontrataziotik eratorritako lanak egiteko beharrezkoa den kualifikazio- eta dedikazio-maila egokia dituen talde bat jarriko du. Horri dagokionez, kontratazio honetan jasotako zereginak eta zerbitzuak egiten dituzten langileak enpresa adjudikaziodunaren lerro hierarkikoaren beraren eta bitarteko kargudunen mende egongo dira lan-arloan eta organikoki, eta enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko du indarrean dauden xedapenak ezartzen dituzten lan, zerga eta gizarte-segurantzako obligazioak betetzea.

Baloratu egingo dira preskripzio teknikoaren agirian eskatutako gutxieneko esperientziatik gorako teknikariak.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- a) Prezioen zerrenda.

Lizitatzailleak apartatu honetan zehazten diren prezio unitarioak adierazi beharko dituzte.

Itema	Unit./2 urte	Erreferentzia	Izena	€/u	€
1	192 ordu		Proiektuburuaren orduak		
2	524 ordu		Analistaren orduak		
2	976 ordu		Analista-programatzailearen orduak		
3	600 ordu		Eduki berriak sortzea		
4	1 unit.		Irisgarritasun-auditoria		
			GUZTIRA:		

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

☐ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Mentsaka Corral.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga.

Xabier Orue Moro.

Itziar Zarate Urrutia.

Gerardo Latorre Pedret.

Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoez (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBB) / 2	48 puntu
BBB	47 puntu
0,8 x BBB	46 puntu
0,6 x BBB	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

Bi

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = \frac{\quad}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < B_i \leq 0,8 \times BBB$

$$P_i = 44 + \frac{(B_i - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < B_i \leq BBB$

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < B_i \leq (BBB + B_{max}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BBB)}{(B_{max} - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BBB - B_{max})}{(B_{max} - BBB)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

1.- Exekuzioaren memoria teknikoa eta metodologia (30 puntu)

- Proposamen teknikoa kontratuaren xedera egokitzea (25 puntu)
 - Exekuzioaren metodologia.
 - Lan-plana.
 - Erabilitako tresnak eta teknologiak.
 - Zerbitzuaren kalitatea eta arauak betetzea.
 - Etengabeko berrikuntza eta hobekuntza
- Zerbitzu-ematearen irismena (5 puntu)
 - Zerbitzuen deskribapena.
 - Zerbitzu-mailak

2.- Kontratuaren eskura jarritako baliabide teknikoak (20 puntu)

- Kontratuari esleitutako baliabide teknikoak eta antolakuntzakoak (15 puntu)



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Taldearen antolamendua (5 puntu)

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkeztean badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzaileri, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

Baztertzeko arrazoia izango da Preskripzio Tekniko Partikularren Agirian eskatutako ezaugarri teknikoak ez betetzea.

Baztertzeko arrazoia izango da proiektura bideratutako teknikariak ez eskaintzea, eta eskatutako gutxieneko ziurtagiriak ez betetzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZEHAPEN ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

Epeak ez betetzea:



M.- ZEHAPEN ZEHATZAK

1. Preskripzio teknikoen agirian jasotzen den mantentze zuzentzailearekin lotutako gorabeherak ebazteko ezarritako epea ez betetzea.

Zigorak: Kontratuaren prezioaren % 1, hilean denboraz kanpo konpondutako gorabeheren % 10 bakoitzeko.

Kontratuaren suntsiarazpena: Ezarritako zigorrak, elkarrekin zenbatuta, kontratuaren prezioaren % 10 izatera heltzen direnean, BBUPek kontratua bertan behera uzteko aukera izango du.

2. Preskripzio teknikoen agirian jasotako mantentze moldagarriarekin edo ebolutiboarekin lotutako aldaketak ezartzeko gehieneko epea ez betetzea.

Zigorak: Kontratuaren balioaren % 0,5, atzerapen-aste bakoitzeko.

Kontratuaren xede den prestazioa gaizki betetzea

1. BBUPen iritziz behar adina testatuta ez dauden garapenak entregatzea.

Zigorak: Kontratuaren prezioaren % 1, garapenak behar beste testatuta egon gabe igarotzen den aste bakoitzeko.

2. Informazioa edo datuak galtzea, bai eta kontratuan zehar landutako proiektuetan gordetako informazio sentikorrerako sarbidea urratzea ere.

Kontratua suntsiaraztea: BBUPek kontratua suntsiaraz dezake.

3. Kontratua garatu bitartean eskuratzen den informazioari buruzko konfidentzialtasun-betebeharra ez betetzea.

Kontratua suntsiaraztea: BBUPek kontratua suntsiaraz dezake.

Kontratua gauzatu bitartean baldintzak ez betetzea

1. Epeak ez betetzea:

Erantzuteko denborak eta zerbitzu-mailako akordioak (SLA) behin eta berriro ez betetzea falta astuntzat hartuko da. Zerbitzuaren funtzionamenduari kalte egiten dioten atzerapen nabarmen edo luzeen kasuan.

2. Eskaintzan aurkeztutako lantaldearen osaera ez betetzea, eskatutako gaitasunari eta esperientziari dagokienez, falta astuntzat hartuko da. Kontratatutako lantaldea mantendu beharko du kontratuak irauten duen bitartean, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik, betiere entitate kontratatzailearen aldez aurreko baimenarekin.

Kontratua suntsiaraztea: BBUPek kontratua suntsiaraz dezake.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztagiria.



N.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikagarria.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai

P.- SUBROGAZIOA

Ez da aplikagarria

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI

☐ EZ

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Kontratura atxikitako teknikariak kondizio-agiri teknikoak zehaztuta eremuaren eta teknologien arabera behar diren gutxieneko esperientzia-urteak izango dituzte. Proiekturako BBUPen eskura dauden teknikarien curriculumak zehaztu beharko da, eta haiek ordeztu aurretik, BBUPeko arduradun teknikoek egiaztatu beharko dute teknikariak kontratuko eskakizunak betetzen dituztela.

Bermea:

Bermeak barne hartuko ditu ezkutuko akatsak edo hutsegiteak zuzentzea, barne hartuta ezarritako softwareari egozten zaizkion errendimendu-arazoak, sistemaren funtzionamenduan agerian gelditzen direnak, edo proben bidez edo beste edozein bitartekoz antzematen direnak, bai eta osatu gabeko dokumentazioa amaitzea eta gabeziak dituen zuzentzea ere. Akatsak zuzentzearen ondorioz sortzen diren produktuak kondizio-agiri honetan eskatutakoaren arabera eman beharko dira.

Bermeak barne hartuko ditu ikusitako akatsak zuzentzeko behar diren giza prestazioak eta prestazio materialak, guztiak, eta sortzapen ekonomikorik gabe egingo dira, zerbitzuak jatorriz emandako kondizio beretan.

Baldin eta, eragiketa- eta logistika-arrazoiak direla kausa, BBUPek hirugarren batekin kontratatzen badu bermean jaso gabeko mantentze-lan ez-zuzentzaileetarako laguntza-zerbitzua, proiektu honen adjudikaziodunak ez du bermea eten edo bertan behera utziko; hala bada, bi aldeek prozedurak antolatuko dituzte, BBUPek koordinatuta, biak elkarrekin egon daitezen ukitutako aldiak, hitzartutako hamabi hilabeteen barruan.